



PRESTAKUNTZA OSAGARRIA

ZEHARKAKO GAITASUNEI BURUZKO PRESTAKUNTZA

ENPLEGUA BILATZEKO TRESNAK ETA ESTRATEGIAK

“Atzeritarrak diren langabetuak eta jarraian adierazitako udalerrietako batean bizi direnentzat: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.

- **Iraupena:** - 69 ordu taldeka.
- **Data:** azaroaren 19tik abenduaren 21era.
- **Ordutegia:** prestakuntza teorikoa 09:30etik 12:30era izango da.

IKASTAROAREN HELBURUAK.-

- Etorkinei gizarteratzen eta lan-munduan txertatzen lagunduko dieten jarrerazko alderdiak lantzea.
- Euren jatorriaren zioz lan-munduarekin konektatzeko balio dezaketen gakoak ezagutzen ez dituztenei lana bilatzeari lotutako ezagutzak eta tresnak helaraztea.

BERARIAZKO HELBURUAK

- Hausnarketa eta autoezagutza bultzatzea, norberak bere indar-guneak eta ahuleziak antzeman ahal izateko.
- Gure benetako motibazioak aurkitzea eta indartzea.
- Lan-munduarekin lotuko gaituzten gako pertsonalak aurkitzea. Zein da gure balio erantsia?
- Egoera bati aurre egin ahal izateko modu desberdinen jabe izatea zein garrantzitsua den barneratzea, une bakoitzean modu egokiena hautatu ahal izateko.
- Eguneroko egoerei aurre egiteko eta komunikatzeko zenbait gaitasun nahiz estrategia eskuratzea: bai gizartekoak, bai lanekoak.
- Hausnarketa egitea, gaitzat hartuta ez dagoela komunikatzeko, egoteko edo egiteko modu bakarra, eta egoeraren arabera guztiak izan daitezkeela baliagarriak.
- Ahal den neurrian ikastaroan parte hartzen duten pertsonen gizarte-harremanak hobetzea eta, horrela, lan-munduan txertatzeko aukerak hobetzea.
- Lana bilatzeko jarrera aktiboa eta errealista sortzea.
- Bertaratutakoek krisi-egoeran galdutako kontrolaren sentrazioa eta autoestimua berreskuratzea.
- Hautapen-prozesu bateko faseak ezagutzea.
- Hautapen-prozesuari behar bezala egitea aurre eta gainditzea.